



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 19a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikularen b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikularen b) letra aldatzen duena Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).
- Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (12. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (12. or.).
- Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiru hilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatzeko aldera. Izapidetzeko ez onartua (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, 2009ko Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen onartzen Parlamentuko indar politikoek parte hartzea Parlamentutik kanpoko organoetan, egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa aztertzeo sortutakoetan. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Gazte Behatokiari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruzkoa, Txentxo Jiménez Herbas jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (21. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (21. or.).
- Galdera, emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (22. or.).
- Galdera, Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, Vinsak etxebizitzaren salerosketarako egin duen azken kanpainari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (24. or.).
- Galdera, Vinsak azken urtean erositako etxebizitzei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (24. or.).
- Galdera, jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionarioik lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Vinsak bere lan egiteko gaur egun dituen bulegoiei eta lokalei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).
- Galdera, enpresa publikoetako plantillari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).
- Galdera, enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeo dirulaguntzei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisikoak eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Ezgaitasunen bat duten pertsonen talde heterogeneo bat osatzen dute, baina pertsona horiek guztiek komunean dute, neurri batean edo bestean, berme osagarriak behar izatea eskubide guztiak baliatuz bizi ahal izateko edota gainerako herritarren baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko Nafarroako bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalen.

Bi arrazoi dira foru lege proposamen hau justifikatzen dutenak: alde batetik, gizartean desberdintasunek bere horretan dirautela, nahiz eta Konstituzioak ezberrik gabeko aldarrikapenak egiten dituen eta ahalegin handia egin den oraindik indarrean dagoen legean oinarrituta; eta, bestetik, are garrantzitsuagoa dena, "ezgaitasuna" ulertze-ko moduan izandako aldaketa eta, ondorioz, ikuspegi eta estrategia berrien sorrera. Izan ere, gaur egun jakina da ezgaitasunen bat duen pertsona batek jasan behar izaten dituen oztopoen jatorria pertsona horrek dituen zailtasunetan dagoela, baina baita ere, eta batez ere, pertsona ertainen neurri eginiko gizartean bertan ezartzen diren oztopo eta mugetan ere, herritar horien erabateko parte-hartzea eragozten baitute.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da esku-hartzeko estrategiak diseinatu eta abian jartzea, aldi berean eragiteko baldintza pertsonaletan eta ingurari buruzko baldintzetan.

Ikuspegi horrekin lotuta, badira bi esku-hartzeko estrategia, nahiko berriak direnak eta, jatorri desberdinak izan arren, pixkanaka bat egiten ari direnak. Bi estrategia horiek dira bereizkeriaren kontrako borroka eta irisgarritasun unibertsala.

Bereizkeriaren kontrako borrokaren estrategia sartzeko da zenbait gutxiengok tratatu berdintasuna eta aukera berdintasunerako eskubidea lortzeko eginiko bide luzean.

Hogei urte baino gehiago igaro dira Oztopo Fisikoei buruzko Legea onetsi zenetik eta, hori dela eta, beharrezkoa da beste lege bat egitea, hura ordezkatzeko duena eta ezgaitasunen bat duten pertsonen normalizaziorako eta gizarte integrazioarako politikei bultzada emanen diena.

Gaur egun, aipatu eskubide eta askatasun horiek dira ezgaitasunaren arloko jardueren ildo nagusietako bat; halaxe aitortzen da Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako Legean, hura garatzen duten erregelamen-

duetan eta Nazio Batuen Konbentzioan, zeina Espainian indarrean sartu baitzen 2008ko maiatzaren 3an eta Nafarroako Parlamentuak berretsi baitzuen urte bereko irailaren 15ean.

Espainiako Konstituzioaren 49. artikuluan, botere publikoak premiatzen dira ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko politikak jar ditzaten abian, pertsona horiek gainerako herritarren esku-bide berak baliatu ahal ditzaten.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, 44.1 eta 2 artikuluan Foru Komunitate-ari eskumen osoa eman zion lurralde antolamen-du, hirigintza eta etxebizitzaren arloan, bai eta erkidegoan interesa eta eragina duten herrilaren arloan ere. Halaber, 49.1.f) artikuluan eskumen osoa eman zion foru erkidegoko garraioaren arlo-an, eta artikulua bereko b) letran eskumen osoa ematen zaio Foru Komunitateko funtzionario publi-koen estatutu-araubidearen arloan, Estatuko oina-rrizko legeriak funtzionario publikoei onartzen diz-kien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz.

Bestalde, 55.1 artikuluan ezartzen denez, Nafarroari dagokio soinuen eta telebista seinaleen irriati-hedapenaren araubideari buruzko legegintza garapena egin eta betearaztea, Irrati eta Telebista-ren Estatutu Juridikoa arautzeko Legeak ezarri bezalako kasu eta moduetan, eta, era berean, 56.1.b) idatz-zatian ezartzen da Nafarroari dagoki-ola, Konstituzioak xedatutako moduan, industria gaiei buruzko eskumen osoa.

Proposatzen dugu lege proposamen honetan kontzeptuen berrikusketa sakona egitea; hala, ezgaitasunen bat duen pertsonaren kontzeptuak ordezkatzeko lituzte "ezindu" edo "gutxitu" bezalako terminoak, argituz egoera hori, norbanakoaren fak-toreez gain, inguru sozialaren ondorio ere badela, giza eskubideek berezkoak dituzten balio jakin batzuk bere egiten dituen "sozial" deituriko arreta ereduaren arabera.

Halaber, lege proposamenaren xedea ere zabalduko da 1988ko Oztopoei buruzko Legean jasotzen ez diren alorretara; hain zuzen, informa-zioaren gizartearekin eta telekomunikazioekin zeri-kusia duen alorrera, bai eta administrazio publiko-en ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearekin zeri-kusia duen alorrera ere.

Lege proposamen honen xedea da ongizate orokorraren maila igotzea eta xedapenak eta arau-ak ezartzea, irisgarritasun unibertsala eta ororen-tzako diseinua errazteko, herritar guztiek ingurune, ondasun eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez.

Administrazioak edo organo eskudunak premi-atzten dira foru legean xedatutakoa bete eta kon-trola dezaten, bai eta legearen xedea sustatu eta bultza dezaten. Halaber, zenbait eginkizun osagari esleitzen zaizkio jarraipen batzorde bati, zeinak jasoko baitu Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeretarako abenduaren 3ko 51/2003 Legearen 15. artikuluan adierazitako espi-ritua, alegia ezgaitasunen bat dutenen sektoreak dagozkion politiketan parte hartzeari buruzkoa.

Nafarroako administrazio publikoek bere gain hartzea gaur egun dauden oztopoak ezabatzeko ekimena hartzea izanen da foru legearen eta hura garatuko duten arauen eta herritar guztientzat inte-grazio eta ongizate maila hobekitzeko asmo sendoaren bermerik handiena.

I. TITULUA

Foru legearen xedea eta esparrua

I. KAPITULUA

Foru legearen xedea

1. artikulua.

Foru lege honen eta bere lehenengo eranski-naren xedea da ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna bermatzea, irisgarritasun uni-bertsala eta ororentzako diseinuari dagokienez, halako moduz non inguruneek, prozesuek, onda-sunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan behar baitu-te, segurtasun eta erasotasun baldintzetan eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere.

II. KAPITULUA

Foru legearen esparrua

2. artikulua.

Foru lege honen esparrua izanen da hirigintza-ren prozesuekin eta ezaugarriekin zeri-kusia duen oro, hiri altzariak eta obrak direla-eta jartzen diren behin-behineko babes-elementuak eta seinaleak barne. Halaber, foru lege honen esparrua osatzen dute, irisgarritasun unibertsalaren printzipioetara egokitzeari dagokionez, erabilera publikoko gune libreek izan beharreko diseinu eta ezaugarriek, bai eta informazioaren gizartea deiturikoaren berezko elementuen diseinu eta ezaugarriek ere. Horretaz gain, foru lege honek zenbait erreferentzia jaso-tzen ditu Administrazio Publikoaren ondasun, bali-abide eta zerbitzuak baldintza berdinetan eskura-tzeari dagokionez.

3. artikulua.

Foru lege hau aurreko artikuluan aurreikusitako jarduetara aplikatzearen ondorioz sortzen diren konponbideak ez badatoz bat legearen xedapeneekin edo eskatzen duten inbertsio ekonomikoa kasuan kasuko jardueraren aurrekontu osoaren % 20 baino gehiagokoa bada, organo eskudunak baimena eman ahalko du beste konponbide batzuk abian jartzeko, ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalerako eta ororentzako diseinurako eskubidea balia ahal dezaten ziurtatze aldera.

Horretarako, planen eta proiektuen oroitidazki-an justifikatu beharko da hartutako neurrien egokitasuna eta kasuan kasuko agindu teknikoak aplikatzeko ezintasuna eta desegokitasuna.

4. artikulua. Urbanizazio proiektua.

Urbanizazio proiektuetan ondoko gaiak zehaztu beharko dira, irisgarritasunaren eta ororentzako diseinuaren maila argitze aldera:

1. Oinezkoentzako ibilbideak.

Oinezkoentzako ibilbideak dira oinezkoen zirkulazioa xede nagusi duten gune publiko edo pribatu guztiak. Ibilbide horien trazadurak eta diseinuak irisgarritasuna ziurtatu beharko dute.

2. Trazadurak eta neurriak.

Horretarako, gune horien trazadurak eta neurriak zehaztuko dira, bai eta ondoko hauek ere: oinezkoentzako gutxieneko zabalera, luzetarako eta zeharkako malda, zintarrien gehieneko altuera, eskailera-maila isolatuak eta ateen eta parametro bertikaleetako tokian tokiko pasabideak.

3. Zoladurak.

Espalioen eta galtzaden zoladuren ezaugarriak zehaztuko dira, bai eta zoladuraren ondoko osagaienak ere, hala nola txorko, lorategi, sareta, kutxatila eta kainu-zuloenak.

4. Oinezkoentzako pasabideak.

Oinezkoen pasabideei dagokionez, zehaztuko dira trazadura eta neurriak, gutxieneko zabalera, espaloian edo galtzadan dauden, luzetarako eta zeharkako malda, gutxieneko tartea, seinaleztapena, kokapena eta zolaketaren ezaugarriak.

5. Eskailerak eta arrapalak.

Kontuan hartu beharko dira seinaleak, esku-bandaren tipologia, eskaileren eta arrapalen ezaugarriak eta ekailera mekanikoekin, igogailuekin eta plataforma jasotzaileekin zerikusia duten osagai mekanikoak. Horri dagokionez, kasuan kasuko sei-

naleak jarri beharko dira kanpoaldean, ezgaitasunen bat duten pertsonen igarotzea errazte aldera.

6. Ibilgailuentzako espaloietako pasabideak.

Foru lege honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira ibilgailuentzako espaloietako pasabideekin, aparkalekuekin, ibilbide mistoekin, alde zaharretarako eta oinezkoentzako kaleetarako zehaztapenekin eta hiri-plaza eta parkeekin zerikusia duten alderdiak.

7. Hiri altzariak.

Proiektu horietan aurreikusitako hiri altzarien diseinuari dagokionez, kontuan hartu beharko dira zenbait gai, hala nola diseinu unibertsal eta ergonomikoa, hiri altzari horien kokagunea eta beste osagai batzuei buruzko zehaztapenak, zeinak baitira semaforoak, telefono publikoak, paperontziak, eserleku publikoak, ibilgailuak igarotzea ekiditen duten oztopo-zutoinak edo bestelakoak, autobus geltokien diseinua, publizitatea jartzeko zutoin edo marquesinak, makina gai-banatzailak, jendea artatzeko mahaia edo leihatilak, informazio panelak edo erakustokiak, iturriak, zaborren hautazko bilketa egiteko edukiontzia, kioskoak, komun publikoak, behin-behineko elementuak eta elementu arkitektonikoak eta apaingarriak.

8. Obren seinaleztapena.

Halaber, kontuan hartuko da obrak direla-eta jarritako behin-behineko elementuen –zangak, edukiontzia edo aldamiok– babesa eta seinaleztapena.

9. Erabilera publikoko gune libreak.

Erabilera publikoko gune libreak diseinatzen dituzten proiektuei dagokionez, horietan kontuan hartu beharko dira gutxieneko irisgarritasun baldintzak, egiturazkoak, oinezkoentzako ibilbideak, seinaleztapena, informazioa eta sarrera-irteerak. Parke, lorategi eta ingurunea interpretatzeko zentroen diseinuari dagokionez, behar bezala zehaztu beharko dira sarrera-irteerekin zerikusia duten alderdiak, bai eta ikusgai dauden elementuen eta informazio-elementuen kokapena ere –kartelak, gidak, entzunezko gidak eta bestelako informazio-sistemak, ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbidea ere bermatze aldera.

10. Proiektu horietan zehaztu beharko da, lege honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreikusitako irisgarritasun-elementuek dakarten kostuen igoerak gainditzen duen % 20ko muga, baimena ematen aldera ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun egokia bermatuko duten beste konponbide batzuk abian jartzeko.

5. artikulua. Eraikinak.

1. Eraikuntza-proiektuak.

Eraikuntza-proiektuei dagokienez, kontuan hartuko dira eraikinetako sarbideen ezaugarriak eta, bereziki, oinezkoentzako sarbideak eta kasuan kasuko seinaleak eta bestelako elementuen erabilera, hala nola atezain automatikoak eta bideo-atezainak, ate automatikoak eta ez-automatikoak, tornuak, langak edo sarbidea kontrolatzeko beste elementu batzuk, irisgarritasun unibertsala bermatze aldera.

2. Atariak.

Kontuan hartuko dira argiztapena eta etengailuen eta altzarien kokapena, eraikina publikoa nahiz pribatua izanda ere.

3. Eraikinak eta etxebizitzak.

Eraikinen eta etxebizitzaren egiturari, banaketa orokorrari eta hormei dagokienez, kontuan hartu beharko dira foru lege honen xedapenetara egokitzeara ahalbidetuko duten elementu guztiak, bai barneko komunikazio horizontalei eta bertikalei buruzkoak bai erabil daitezkeen elementu mekanikoei buruzkoak.

4. Jende asko biltzen duten gunek.

Zainduko da jendea artatzeko gunek –mahaiak edo leihatilak– jende guztiarentzat irisgarriak izan daitezkeen. Halaber, zainduko dira informazioaren eta erabiltzailearen arretaren irisgarritasuna.

5. Ikuskizun aretoak.

Ikuskizun aretoen erabilerari eta estadio, harmaila, igerileku, aldagela eta dutxa, higiene zerbitzu eta bainugeletarako sarbideei dagokienez, kasuan kasuko foru dekretuaren bidez ezarriko dira ezgaitasunen bat duten ikusleentzako irisgarritasun ezaugarriak.

6. Hiri altzariak.

Horien kokapena zehaztuko da, halako moduz non ez baita arriskutsua izanen ezgaitasun fisiko edo zentzumenezkoren bat duten pertsonentzat. Halaber, konponbideak jarriko dira jendeak igaro ahal izatea bermatzeko eta elementu horiek behar adinako denborarekin bereizteko, batez ere zerbitzu publiko berezituak eskaintzen diren eraikinetan, hala nola turismo ostatuetan, osasun zentroetan, ikastetxeetan, kulturuneetan edo bestelakoetan.

7. Bizitoki-eraikinak.

Bizitoki-eraikinei dagokienez, etxebizitzak edo adineko pertsonentzako egoitzak direla ere, kontu-

an hartu beharko dira irisgarritasun unibertsala bermatuko duten alderdi guztiak.

8. Etxebizitza berriak:

Etxebizitza berrietan kontuan hartu beharko dira, beharrezkoa den kasuetan, ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrezkoak diren diseinuari eta banaketari buruzko elementuak.

6. artikulua. Garraioa.

1. Autobus bidezko garraioa. Hiri barneko eta hiriarteko autobusak.

Kontzeptu horiei dagokienez, kontuan hartu beharko dira sarbideen ezaugarriak eta ibilgailuen eta geltokien diseinua, irisgarritasun unibertsala ezarritako epean bermatze aldera.

2. Tren bidezko garraioa. Aire bidezko garraioa.

Foru Komunitateak bi alor horietan dituen eskumenak direla eta, zehaztuko da irisgarritasun unibertsalari buruzko zein egokitzapen diren beharrezkoak terminal eta geltokien eta horietan dauden gune publikoen ezaugarriei dagokienez, foru lege honetan jasotako irisgarritasun unibertsalari buruzko printzipioak betetze aldera.

7. artikulua. Informazioaren eta telekomunikazioen gizartea.

Informazioaren eta telekomunikazioen gizartearen alorrean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko printzipioak betetzen direla sinadura elektronikoa edo webgune publikoetarako sarbideak bezalako elementuetan, bai eta zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikotan ere. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen arloan, hitzarmenak egiten ditu telekomunikazioen alorreko enprekin, berma dezaten ezgaitasun fisiko edo zentzumenezkoren bat duten foru erkidegoko herritarren irisgarritasuna bezeroak artatzeko zerbitzuak eskuratzeko. Halaber, eta xede berarekin, hitzarmenak egiten dira foru erkidegoaren esparruan jarduten duten telebista eta irrati digitaleko enprekin.

8. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoaren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko.

Foru lege honen xedea da irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua bermatzea administrazio publikoaren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko esparruan, bereziki giza baliabideei eta baliabide materialei, jendea artatzeko bulegoiei eta Nafarroako Administrazio Publikoaren inprimaki eta ereduiei dagokienez.

II. TITULUA**Aplikatzekoak diren arau orokorrak eta berariazkoak**

9. artikulua. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko erregelamenduaren bidez arautuko du Nafarroako Foru Komunitateko hirigintzaren arloko eta hiri altzarien, erabiera publikoko gune librean, barneko guneen, garraio publikoaren eta telekomunikazioen arloko ezaugarriei aplikatzekoak diren xedapen eta arau orokor eta berariazkoekin zerikusia duen oro, Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeari kontsulta egin ondoren.

Halaber, Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren administrazioko prozesu guztiak, halako moduz non, arauak aintzat hartu eta onetsi aurretik, kasuan kasuko organo edo zerbitzuak irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin beharko dituen.

Horrekin lotuta, Nafarroako Gobernuak garatuko du indarrean dagoen legeria, administrazioko prozedurak arautze aldera, horrela Nafarroako gainerrako administrazioek, entitateek eta enpresa publikoek, akordio garrantzitsuak hartu aurretik, irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin eta espedienteetan sar ditzaten.

III. TITULUA**Arau orokorrak****I. KAPITULUA****Sustapena eta bultzada****10. artikulua.**

Administrazio publikoek irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua bermatu beharko dituzte foru lege honetan deskribaturiko alorretan, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izanda ere. Halaber, eskatu beharko dute proiektuak egokitu daitezen foru lege honetan eta hura garatuko duten erregelamenduetan ezarritako parametroetara.

11. artikulua. Eraikinak egokitzea.

1. Nafarroako Gobernuak eta tokiko administrazioek, dirulaguntzak, kredituak eta abalak eman behar dituztenerako, lehenetsiko dituzte ezgaitasunen bat duten pertsonen euren ohiko etxebizitzetan edo horien sarbideetan egin beharreko birgaitze lan eta instalazio bereziak.

2. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, azterlan bat

eginen du jakiteko zer bizigarritasun-baldintza bete behar dituzten ezgaitasunen bat duten pertsonen ohiko etxebizitza bihur daitezkeen behe-solairueta-ko lokalek. Edonola ere, irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren eskakizunak bete beharko dituzte.

12. artikulua. Eraikin publikoak egokitzea.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, jarduera plan bat prestatuko du bere espazio libre eta jendeak erabiltzekoak diren eraikin eta lokalak foru lege honetako eta bere erregelamenduetako xedapen eta arau orokorretara egokitzeko.

2. Jarduera plan horien gutxienezko osagaiak izanen dira egokitzeko moduan dauden gune, eraikin eta lokalen inbentario edo zerrenda bat, jarduerari ekiteko lehentasunen hurrenkera, eta jarduketa-planaren exekuzio faseak.

II. KAPITULUA**Betetzea eta kontrola****13. artikulua.**

1. Nafarroako Gobernuak eta plangintza eta exekuzio tresnak eta foru lege honetan xedatutakoa aplikatzekoak zaizken kasuak jasotzen dituzten proiektuak, edonolakoak izanda ere, izapidetzeko eta onesteko eskumena duten gainerako administrazio publikoek egiaztatuko dute proiektu horiek egokitzen diren foru lege honetako eta bere erregelamenduetako xedapenetara.

2. Foru lege honetan eta bere erregelamenduan jasotako xedapenak betetzea eskatuko da plangintza eta exekuzio tresna onesteko, bai eta beharrezkoak diren lizentziak, inon bizitzeko baimenak, lehen erabilerarako lizentziak edo babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioak emateko.

3. Nafarroako administrazio publikoek eta haren organoek, foru lege honen esparruan aipatzen diren garraio baliabideen, informazioaren gizaritearen zerbitzuen, eta telekomunikazioen emakida eta erabilera arautzeko eta baimentzeko eskumena badute, zainduko dute ematen dituzten xedapenetan eta betearaziko dute izapidetzen dituzten espedienteetan foru lege honetan eta bere erregelamenduetan ezartzen diren xedapenak.

14. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak

Foru lege honetan deskribaturiko esparruei dagozkien arau-hausteei aplikatuko zaie ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau hausteen eta zigorren araubidean ezarritakoa.

15. artikulua. Irisgarritasunaren nazioarteko ikurra.

Irisgarritasunaren nazioarteko ikurra, zeina oztopo fisiko eta zentzumenezkorik ez egotearen adierazlea baita, jarri beharko da, halakorik ez balego, erabilera publikoko eraikin eta lokaletan, bai eta bidaiarien zerbitzu publikoko garraio baliabideetan.

16. artikulua. Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarterko Batzordea eratzea. Batzordearen funtzionamendua.

1. Arauz ezartzen den forman eta moduan Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko Departamentuarterko Batzordea, Nafarroako Gobernuo kasuan kasuko departamentuari atxikia; haren eginkizunak lege honen helburua eta xedea betetzera bideratuko dira.

2. Erregelamenduetan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, batzorde horretan parte hartuko du foru lege honen eskumen-esparruan zehazkako eragina duten departamentu bakoitzeko kide batek, bai eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreorde batek eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko kontseilari batek.

Halaber, batzorde horretako kide izanen da Nafarroan hedatuen dagoen ezgaitasunaren sektoreko entitatearen kide bat.

Batzordeko burua izanen da une bakoitzean dagokion departamentuko kide bat.

3. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru lege honetan eta hura garatzeko eginen diren erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoa bete dadin sustatzea.

b) Hura betetzeko betebeharra duten entitate edo pertsonen aholkua ematea gaia dela-eta gerta daitezkeen auzietan.

c) Teknika arloko aurrerapenak eta foru lege hau zein hura garatzen duten erregelamenduak aplikatzean egindako iradokizunak aztertu eta biltzea eta, halaber, legearen helburuak betetzeko behar adina neurri har daitezen bultzatzea

d) Foru lege honen eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenen edukia berrikustea eta haien aplikazioaren eraginkortasuna egiaztatzea, bidezkoak diren aldatetako proposatze aldera, hartutako esperientzian eta eraginkorrak izan diren aurrerapenetan oinarrituta.

e) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honetan deskribaturiko eskumen-esparruetako inguruneetan irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko baldintzak bete egiten

direla egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, zigor espedienteak abia dezaten proposatzea erakunde eskudunei.

Lehenengo xedapen gehigarria.

1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuo departamentuek, zeinek bere eskumenen esparruan, txosten bana prestatuko dute, foru lege honen eskumen-esparruetan xedatutakora egokitzeke planak noraino bete diren ebaluatzeko.

2. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuo departamentuek, edota Lehendakaritza Departamentuak, Gobernu osoaren izenean, jarduketa plan bat aurkeztuko dute Nafarroako Parlamentuan, eta bertan finkatuko dira herritar guztien irisgarritasun eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak.

Bigarren xedapen gehigarria.

1. Obra berriko etxebizitzetan ezinbestekoa izanen da igogailua jartzea. Halaber, etxebizitza horien proiektua eta eraikuntza foru lege honetan eta bere erregelamenduetan xedatutakoaren arabera eginen da.

Jada eginda dauden etxebizitzetan jabetza horizontalari buruzko legean ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Edonola ere, eta foru lege honetan ezarritako xedapenetatik aplikatzekoak zaizkienez gain, soilik ezgaitasunen bat duten pertsonentzako etxebizitzak egiteko dagoen eraikinetak ondoko baldintzak hartuko dira kontuan:

a) Eraikin horietan ziurtatu beharko da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako etxebizitzak eta erabilera komuneko guneak irisgarriak izanen direla pertsona horientzat, foru lege honetan eta bere erregelamenduetan ezarritako xedapen eta arauak jarraituz.

b) Aipatu etxebizitza eta erabilera komuneko guneen diseinu eta exekuzioa foru lege honetan eta bere erregelamenduetan ezarritakoaren arabera eginen da, eta betiere ahalbidetuko dute ezgaitasunen bat duten pertsonen modu egokian erabili ahal izatea.

Xedapen iragankorra.

Lege hau indarrean sartzen denean indarra duten plan, arau, ordenantza eta Nafarroako administrazio publikoen bestelako xedapenak egokitu egin beharko dira oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko foru lege honetan xedatutakora.

Azken xedapenetan lehenengoa.

1. Foru lege hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hileko epean, legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren arauak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak.

2. Foru lege hau indarrean sartu eta gehienez ere hilabeteko epean, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarterko Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua prestatuko du Nafarroako Gobernuak.

Azken xedapenetan bigarrena

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, 4/1988 eta 22/2003 foru legeak.

Azken xedapenetan hirugarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

1. ERANSKINA**Aparkatzeko txartela.**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartela eskuratzeko baldintzak eta prozedura

Ezgaitasunen bat duten pertsonak erabiltzen dituzten ibilgailu partikularrak aparkatzeko txartelen ezaugarriak izanen dira Europar Batasuneko Kontseiluaren 8/98 Jarrera Bateratuaren eranskinean agertzen direnak.

Aparkatzeko txartela eskuratzeko baldintzak:

1. % 33 baino gehiagoko ezgaitasuna izatea eta ezgaitasuna aitortzen duen ziurtagiria izatea.

2. Mugikortasuna galarazten duen ezgaitasun larria izatea; horrek esan nahi du gairitu egin behar dela garraio publiko kolektiboak erabiltzea galarazten duten mugikortasun zailtasunak daudela zehazteko baremoa, zeina jasota baitago abenduaren 3ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinean.

3. Ikusmen arazoak dituzten pertsonentzat:

3.1. 0,1eko edo gutxiagoko ikusmen zolitasuna (Weckerren eskalaren 1/10) ahalik eta zuzenketa optiko onenarekin.

3.2. 10 graduko edo gutxiagoko ikuseremua

– Aparkatzeko txartela eskuratzeko baldintzak:

1. Banakako aparkatzeko txartela eskatzeko, lehenengo aldiz edo berritzeko, ondokoak aurkeztu beharko dira:

1.1. Txartelaren titularraren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. 1.2. Txartelaren titularraren argazki bat.

1.3. Ezgaitasunaren maila ziurtatzen duen agiria. Ziurtagiri horretan espesuki adierazi beharko da pertsona horrek mugikortasunari buruzko baremoa gairiditzen duela.

1.4. Ikusmen arazoak dituzten pertsonen kasuan, zehaztu beharko da pertsona horrek 0,1eko edo gutxiagoko aldeko ikusmen zolitasuna duela, zuzenketaarekin, edota 10 graduko edo gutxiagoko ikuseremuaren murriztapen zentroki-dea duela.

1.5. Legezko ordezkariaren egiaztagiriaren fotokopia, titularra adingabea edo ezgaitua denean eta legezko ordezkaria aita edo ama ez den beste norbait bada.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Zuzentzauek eta Luxenburgoko Europako Auzitegiaren jurisprudentziak agerian uzten dute

kontrol juridikoa dela sozietate baten izaera publikoaren osagaietako bat, baldin eta kontrol hori ziurtatuta bada eta egonkorra bada.

Ez da aski Administrazioak zuzendaritza baten izendapenean esku hartu ahal izatea une jakin batean, baldin eta izendapen hori atzera bota badaiteke, edo Administrazioari zaintza-kontseilu bat izendatzeko ahalmena aitortzea, aholku emateko eskumena ematen baitzaie eskuarki. Finantzaketa ere ez da izaera publikoaren osagai, batik bat ez baldin bada esplizitua egiten hura finantzatzeko edo/eta baldintzatzeko bidea; izan ere, dirulaguntza bidez finantzatzen dira, osorik nahiz hein handi batean, ezin konta ahala jarduketa, publikotzat hartu ezin direnak, eta hain gutxi jarduketa horiek garatzen dituzten sozietateak.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzea.

b) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren erakunde publikoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengoa osatzen badu. Orobat dira sozietate publikoak funtzionamenduari dagokionez Foru Komunitateko administrazioen edo/eta haren erakunde publikoen kontrol juridiko ziurtatu eta egonkorra dutenak.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau gehiengo osokoa da Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 45.6 artikuluen arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeigenera hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluko b) letra aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Beharrezkotzat jotzen dugu sozietate publikoaren definizioa formalki egokitzea Europar Batasuneko zuzenbidean eta jurisprudenzian halakoak erregulatzen dituzten arauetara eta ematen zaien tratamendura, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen zuzentarauetan ezarri den bezala. Hori dela eta, gure arauak xede hori dela-eta aldatu behar ditugu.

Sozietate publikoa zer den zehazteko aldaketa horrek, definizioa Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera egokitzea bilatzen duenak, berarekin dakar Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean jasotako kontzeptua zabaltzea. Foru lege hau onetsi ondoren, honakoa joko da enpresa publikotzat: jabetza, finantza partaidetza edo enpresaren arauak direla-eta botere publikoek zuzenean edo zeharka nagusitasunezko eragina gauzatu ahal duteneko edozein enpresa.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aldaketa.

103. artikuluko b) letra aldatu eta testu hau jar-tzea:

“b) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren erakunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengoa osatzen badu. Orobat dira sozietate publikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna dutenak; edo zuzenean edo zeharka haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzen duten sozietateak.

Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari

buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko irailaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko

hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazio Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko irailaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatze aldera.

IZAPIDETZEKO EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, ondokoa erabaki zuen:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8ko Erabakiaren bidez, izapidetzeko onartu eta argitaratzeko agindu zuen Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako foru lege proposamena, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatze aldera 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa –2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak errekurtsua aurkeztu dute erabaki horren aurka.

Erregelamenduaren 125.2 artikulua arabea, kreditu berezietan buruzko ekimen legegilea Nafarroako Gobernuari baino ez dagokio. Hori guztia ikusirik, Erregelamenduaren 37.2 artikuluari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Aipatu errekurtsua onartzea eta, ondorioz, bertan behera uztea 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatze aldera 1,5 milioi euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proposamena dela-eta Mahaiak iragan ekainaren 8an hartutako erabakia.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea onesteak aurrerabide nabarmena ekarri zuen ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera irisgarriak eskura jartzeari dagokionez. Baina 20 urte baino gehiago iragan dira aipatu legea onetsi zenetik eta beharrezkoa da zenbait aldaketa egitea, konplexuagoa eta ezgaitasunarekin sentiberagoa den egoera baten eskakizunetara egokitze aldera. Gainera, indarrean dauden foru araudien ez-betetze nabar-

menen ondorioz, behin eta berriro gertatu baitira, beharrezkoa da gai honi buruzko hausnarketa sakona egitea.

Horretaz gain, Ezinduen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak alor askotan gaintu egin du foru araudian xedatutakoa. Lege horren zioen azalpenean aitortzen da ezgaitasunen bat duen pertsona batek jasan behar izaten dituen oztopoen jatorria pertsona horrek dituen zailtasunetan dagoela, baina baita ere pertsona ertainen neurriak eginiko gizartean ezartzen diren oztopo eta mugetan ere, herritar horien erabateko parte-hartzea eragozten baitute.

Hala, gizarte ereduak eragina duela aitortzen da, esaterako, muga sozialei, ezgaitasunei aurre egiteko modu berriari eta estrategia berriak presartzeko beharri buruz egiten diren erreferentzietan. Ezgaitasunaren gizarte eredu berriak erantzukizuna eramaten du norbanakoarengandik, hura baitzen integratu eta egokitu behar zena, gizartera, zeina diseinatu behar baita guztientzat irisgarri izateko moduan.

Aipatu den bezala, 20 urte iragan dira gai horri buruzko lehenengo foru legea onetsi zenetik, eta komenigarria da orain arte xedatutakoa hobetu eta zabalduko duen arau berri bat; izan ere, argerikoa da hobekuntzak izan arren, oraindik ingurua ez dela irisgarria ezgaitasunen bat duten pertsona askorentzat. Kontuan hartu behar da 1988an xedatutako araua oinarritu zela gaur egun gaintu beharreko ikuspegi, beharizan eta ikuspuntuetan; izan ere, Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeretarako abenduaren 3ko 51/2003 Legean aitortzen den moduan, aldaketak izan dira "ezgaitasuna" ulertzeko moduari dagokionez.

Hala, Nazio Batuen esparruan errotu egin da giza eskubideen ikuspuntutik eginiko ezgaitasunaren gaineko politika. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren arabera –Niza, 2002– debekatuta dago ezgaitasunagatiko bazterketa oro eta aitortzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea dutela beren integrazioa erraztuko duten neurriez baliatzeko.

Horrekin lotuta, bidezkoa da proposatzea Nafarroako Gobernuak Parlamentura igor dezan gai horri buruzko foru lege proiektu bat, zeinak kontuan hartuko baititu ororentzako diseinuaren eta irisgarritasun unibertsalaren kontzeptuak, eta, halaber, saiaturiko baita lege testu batean jasotzen ezgaitasunari buruzko politiken zeharkakotasunaren zentzua.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentutaldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezan ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat, Nafarroan gaur egun indarrean dauden araudiak ordezkaturiko dituen eta Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukerarako abenduaren 3ko 51/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorriko dena.

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun laguntzaren ororenganatzea ezarri zuen, inor baztertu gabe, Nafarroako herritar guztientzat.

“Foru lege honetan definitutako ekitatearen printzipioak eragina du bai herritarren osasun mailari buruzko desberdintasunei dagokionez, bai osasun sisteman sartzeko baldintzen berdintasunari dagokionez. Osasun sistemako zerbitzuak hartzeari dagokionez, aukera berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen da. Printzipio hori, betiere, ez da mugatu behar zerbitzuak fisikoki hartze hutsera. Izan ere, printzipio horren gauzatzea administratiboki ere lortu beharra dago –foru legeak hori bermatzen du, hain zuzen ere, zerbitzu hori unibertsala bihurtuz–, bai eta finantzaketaren aldetik ere.”

Foru legeak berak dioen bezala, ekitatearen printzipioak eragina du bai herritarren osasun mailari buruzko desberdintasunei dagokionez, bai osasun sisteman sartzeko baldintzen berdintasunari dagokionez.

Osasun sisteman sartzeko baldintzetan berdintasuna bermatzeari dagokionez, gauza jakina da berdintasun hori ez dela betetzen ari, herritar batzuentzat doakoa eta erraza delako, eta beste

batzuentzat, berriz, doakoa ez izateaz gainera, zail gertatzen delako, bizi diren tokietan ez garraio publikorik, ez garraio pribaturik (taxiak) ez egoteagatik.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du egoera aztertu eta behar diren bitartekoak jar ditzan Aguilar, Azuelo, Torralba del Río, Torres, El Busto, Espronceda eta gainerako herrietako bizilagunak gainerako herritarren egoera berdinean egon daitezzen diagnosi-probak eta analisiak egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du egoera berean dauden Nafarroako beste eskualde batzuk azter ditzan, konponbide bera emateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osasun sistemarako sarbiderako berdintasunaren aldeko ekimen hau abian jartzeko eta, garraioari dagokionez, Herrilan Departamentuarekin batera jardun dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Legebiltzar honek Nafarroako Unibertsitate Publikoari agindu zion azterlan bat egin zezan,

unibertsitate horretan Medikuntzako ikasketak ezartzearen bideragarritasunari buruz. Txostena aurkeztu zenean agerian gelditu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoa ikasketa horiek abian jartzeko gauza dela.

Sendagileen beharra dago inondik ere, eta ikasleak beste unibertsitate batzuetara alde egiten ari dira eskaintza publikorik ez dagoelako.

Ikasketak ezartzeko babes politikoa badagoez, emateko falta den pauso bakarra da Foru Gobernuaren eta NUPen arteko negoziazioa, unibertsitate publikoan Medikuntzako graduako ikasketak abian jartzeko.

Halere, Hezkuntza Batzordean bideragarritasuna aztertzeke lan-talde bat eratu izanak urtebete atzeratuko du, gutxienez ere, erabakia. NUPek Parlamentuari eskatu dio "lehenbailehen" har dezan ikasketa horiek irakaskuntza publikoan eskaintzeari buruzko erabakia. Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du luzamendutan ibili gabe has ditzan elkarrizketak, NUPen Medikuntzako graduako ikasketak ezartzeko prozesua abiarazte aldera."

Iruñean, 2009ko ekainaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, 2009ko Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

2009ko Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta,

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du lan egiteko borondatea duela, gizartea kontzientziazteko, sentsibilizatzeko eta dinamizatzeko ingurumenaren baliabide naturalen defentsaren arloan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ahal dituen jarduera, proiektu eta neurri guztiak jarriko dituela abian, gaur egungo belaunaldiek eta etor-

kizunekoek ingurune osasungarriaz eta aurrerabide egokiaz gozatu ahal izateko. Finean, ahaleginduko da garapen jasangarria bultzatzen, zeharka, abian jartzen dituen ekimen guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten du eta uste du energia berriztagarrien bultzada, gure erkidegoan egiten den moduan, bide egokia dela energia-eredu garbi bat izateko; halaber, babesten du energia aurrezteko planak prestatzea eta ezartzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen onartzen Parlamentuko indar politikoei parte hartzea Parlamentutik kanpoko organoetan, egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa aztertzeko sortutakoetan.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen onartzen Parlamentuko indar politikoei parte hartzea Parlamentutik kanpoko organoetan, egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa aztertzeko sortutakoetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Azken hilabete hauetan, Nafarroako Gobernuak parlamentuz kanpoko batzordeak ugaltu ditu, gaurkotasan sozial, ekonomikoa eta politikoa funtsezko gai batzuk aztertzeko. Krisiaren aurkako Planen Jarraipenerako Batzordea, Krisiaren aurkako Gizarte Lanerako Taldea, Moderna Planeko Zuzendaritza Komitea... Horiek guztiak Parlamentuko ordezkariaren errealitateari iskitxo eginez eta erkidego honetako Parlamentuan bigarren indarra dena, eta beste batzuk, nahita baztertuz.

Parlamentu-talde honen iritziz, arazoek, eta bereziki krisi ekonomikoak, ez du parlamentuz kanpoko batzorde baztertzaileen premiarik; aitzitik, guztiok modua eduki beharko genuke herritarrek pairatzen duten egoera hobetzeko konponbideak proposatzeko.

Hori guztia dela eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zergatik ez du Nafarroako Gobernuak onartzen erkidego honetako parlamentu-indar guztiak organo horietan parte hartu ahal izatea?

Iruñean, 2009ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Gazte Behatokiari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gazte Behatokiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gazte behatokiari buruzko galdera

1. Gazte behatokia abian jarri al da? Noiz planifikatu ziren aurrekontuak? Gazte behatokia dela eta, zein eginkizun eta helburu ezarri ziren?

2. Abian jarri ez bada, zergatik? Noizko aurreikusitako hura abian jartzea?

3. Aurrekontuetan izandako aldaketak eta gero, nahikoa al da, zuen ustez, "gazte behatokia" izeneko kontusailean geratzen den dirua?

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervasek aurkeztutako galdera, Golf zelaitik eta Zuastiko bizitegi-gunetik A-15erako sarbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Gaia: AP-15 autobidearen sarbidea, Zuastiko golf zelaitik eta bizitegi-gunetik.

1. Uste al du departamentuak gaur egun erabiltzen den sarbidea (zerbitzugunetik doana) bat datorrela hasieran aurreikusitako konponbidearekin, alegia Zuastiko Jaurerriko kirol-eremua eta bizitoki-gunea sustatu zutenek hitzartu zutenarekin.

2. Zein jarduera garatuko du departamentuak sarbide horiei behin betiko konponbidea emateko, Zuastiko Jaurerriko udalez gaindiko plan sektorialean aurreikusitako moduan?

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko Ur Zerbitzuko zuzendariaren arabera, bost ibai daude Nafarroan uraren abiaburuko zuzentarauak 2015etik aitzina bete daitezzen agintzen dituen betekizunak gaur egun betetzen ez dituztenak. Ondokoak dira: Larraun ibaia, Arga ibaiaren zati bat, Queiles ibaia, Cidacos ibaia eta Alhama ibaia.

Antza denez, arrorik arazotsuenetan Nafarroako Gobernuak inplikaturiko proiektuei exijitzen die instalazioetako ura berrerabili beharra, ibai horien gaineko presioa arintze aldera, batez ere udan, emari ekologikoari eutsi ahal izateko.

2010etik aitzina, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak arestian aipatutako bost ibaiak leheneratzeko neurriak hartu nahi ditu.

Gure ibaien gaineko eskumena konfederazio hidrografikoena bada ere, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuak gure ibaiak leheneratzeko eta hobetzeko lankidetzan aritu beharko luke Ebroko Konfederazioarekin, lankidetzan hitzarmenak sinatuta, beste batzuekin, esate baterako Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin, egiten ari den bezala.

1. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bezala, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratu eta hobetzeko neurriak hartzeko?

2. Hala baldin bada, zer neurri hartuko ditu?

3. Nafarroako Gobernuak orain arte ere neurriak hartu baldin baditu, zer neurri hartu ditu bost ibai horiei dagokienez?

4. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin lankidetzan hitzarmen edo protokolorik sinatzeko, Larraun, Arga, Queiles, Cidacos eta Alhama ibaiak leheneratze eta hobetze aldera?

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko

kontseilari María Kutz Peironcely andreak idatziz erantzun dezan:

1. Zergatik ez dago Bideko Ama Birjina Ospitalean medikuntzako guardiaturik, Nafarroako Ospitalean halakorik badagoenean?

2. Zergatik dituzte antolaketa, ordutegi eta soldata desberdinak Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuetan lanean ari direnek?

3. Egia al da Nafarroako Ospitalean sendagile bat larrialdietan egon eta 24 orduz lan egiten duenean gaua guardiatzat kontatzen dela eta Bideko Ama Birjina Ospitalean, berriz, ez dela horrela jokatzen? Egia al da antolatze sistema edo modu horrek Nafarroako Ospitalean guardiarengatik libratzea eragiten duela, eta Bideko Ama Birjina Ospitalean, berriz, ez? Zergatik?

4. Zergatik ez dute lan egiteko sistema bera Bideko Ama Birjina Ospitalean eta Nafarroako Ospitalean biak larrialdietako zerbitzuak baldin badira?

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako herrietan haur parkeak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruz, ondokoa jakin nahi dut:

1. Nafarroan horri buruz indarrean dagoen araudia eta Nafarroako Gobernuak araudi horri dagokionez egin nahi dituen aldaketak.

2. Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunak egindako jarduketak, gure erkidegoko herrietan haur parkeak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzko araudia bete dadin.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruz, ondokoa jakin nahi dut:

1. Emantzipazioko oinarrizko errentari dagokionez, zenbat eskabide izapidetu dira, hilabatez hilabete, 2008aren hasieratik gaur arte?

2. Zenbat diru jarri behar izan du Etxebizitza Departamentuak 2008an, eta zenbat jarriko du 2009an, emantzipazioko oinarrizko errentaren programa eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroa betearazteko?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari dagokienez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Errentan ematekoak diren etxebizitzetatik, zenbat dira Vinsarenak?

2. Alokairuko zorroko zenbat dira jabe partikularrenak?

3. Ba al da une honetan esleitu gabeko etxebizitzarik? Zenbat?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vinsak etxebizitzaren salerosketarako egin duen azken kanpainari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vinsak etxebizitzaren salerosketarako egin duen azken kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vinsa enpresa publikoari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Noiz egin zuen etxebizitzaren salerosketarako azken kanpaina?

2. Zenbat etxebizitza sartu zituen kanpainan?

3. Zenbat eskabide jaso ziren?

4. Zenbat jende dago itxaron-zerrendan?

5. Itxaron-zerrendan daudenek jaso al dute inolako jakinarazpenik?

6. Itxaron-zerrendako zenbat pertsonak lortu dute, azkenean, etxebizitza bat erostea?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainariburuzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vinsa enpresa publikoari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Noiz egin zuen etxebizitzak errentan emateko azken kanpaina?

2. Zenbat etxebizitza sartu zituen kanpainan?

3. Zenbat eskabide jaso ziren?

4. Zenbat jende dago itxaron-zerrendan?

5. Itxaron-zerrendan daudenek jaso al dute inolako jakinarazpenik?

6. Itxaron-zerrendako zenbat pertsonak lortu dute, azkenean, etxebizitza bat alokatzea?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vinsak azken urtean erositako etxebizitzei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vinsak azken urtean erositako etxebizitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vinsa enpresa publikoari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zenbat etxebizitza bukatu erosi ditu Vinsak azken urte honetan?

2. Zer jabetza edo sustatzaile erosi dizkien etxebizitza horiek?

3. Zer prezio zehatzetan erosi du etxebizitza horietako bakoitza?

4. Zer beharrian-azterlan edo arrazoi dago erosketaren bakoitzaren atzean?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionario- lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionario-
lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoen multzoari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Gaur egun ba al dago Nafarroako Gobernu-
ko funtzionario-
lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean?

2. Zer enpresa publikotan daude lanean funtzionario horiek?

3. Zer mailatakoa da funtzionario horietako bakoitza?

4. Zer kargu ari dira betetzen une honetan?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vinsak bere lan egiteko gaur egun dituen bulegoei eta lokalei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Vinsak bere lan egiteko gaur egun dituen bulegoei eta lokalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vinsa enpresa publikoari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zenbat bulego eta lokal ditu une honetan Vinsak bere lana egiteko? Horietako bakoitzaren kokalekua eta neurriak.

2. Lokal horiek enpresarenak dira ala Nafarroako Gobernuarenak? Ba al du lokalik errentan hartuta? Zehaztu lokal horietako bakoitzaren erregimena.

3. Vinsak errentan dituen lokalei dagokienez, zein da enpresak lokal horietako bakoitzarengatik ordaintzen duen urteko kuota?

Iruñean, 2009ko ekainaren 10an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enpresa publikoetako plantillari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, enpresa publikoetako plantillari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoei dakokienez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zenbat pertsona gehiago dago enpresa publikoen plantillan legegintzaldia hasi zenez geroztik?

2. Zenbat kontratu egin zaizkie kanpoko enpresei, plantillak eta langileak hautatzeko azterlanetarako? Zehaztu enpresa horien izenak eta zenbat fakturatu zaien kontzeptu horiek direla eta.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntzei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, enplegu eta tokiko garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Martxoaren 24an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 13ko 0719/2009 Ebazpenaz izendatutako Ebaluazio Batzordea bildu zen, toki entitateek enplegu eta toki garapeneko eragileak kontratatzeko dirulaguntzak jasotze aldera aurkeztutako txostenak ebaluatzeko.

Aipatu ebaluazio batzordeak igorritako aktan jasota dago Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari igorritako proposamena. Horren arabera, proposatutako proiektuei % 50 ordainduko zaie.

Enplegua Sustatzeko eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzuak eta Ogasuneko Kontu-hartzailetza Delegatuak eskatutako laguntzak ematearen aldeko txostena eman dute.

Kontuan hartuta enplegu eta toki garapeneko eragile bat kontratatzeko dirulaguntzak, aurten arte, % 80koak izaten zirela, honakoa jakin nahi dut:

Zein arrazoi, irizpide eta oinarri direla eta jaitsi da enplegu eta toki garapen eragileak kontratatzeko dirulaguntza % 80tik % 50era?

Iruñean, 2009ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

